

# 1

## Orain arteko plangintzen balorazio soziolinguistikoa<sup>1</sup>

**Iñaki Martínez de Luna**

UPV/EHU – Euskal Herriko Unibertsitatea

i.martinezdeluna@ehu.es

Sarrera-data: 2014-05-20 / Onartze-data: 2014-06-13

**Laburpena:** Herri administrazioa aitzindarietako bat ari da izaten hizkuntza normalkuntzaren ibilbidean. Horretarako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak abian jarri dira eta horien eskutik dena ongi egiten ari ez den arren, era berean, bidezkoa da egindako ahalegin eta lorpenen aitortza egitea. Orain arte egindako bidearen analisisa erraztearren Euskadiko Autonomia Erkidegora mugatuko gara gure ahalegin honetan. Izan ere, lorpenik handienak erkidego horretan gertatu dira. Burutu diren saioetatik ondorioak atera daitezke beste lurraldeetarako: alde batetik, ongi egindakoak eredutzat har daitezke eta, bestetik, ustel gertatu direnak irakaspen ezin hobeak izan daitezkeelako. Artikulu honetan plan horien balorazioari ikuspegi soziolinguistikotik ekin nahi diogun arren, hasieran ezinbestekoa zaigu legezko oinarri zein tesuinguruari ere erreparatzea. • **Gako-hitzak:** *hizkuntza plana, zerbitzu hizkuntza, lan hizkuntza.*

**Abstract:** The local administration is one of the pioneers on the road towards language normalisation. That is why Schemes to Normalise Basque Use have been set up, and despite the fact that not everything is being done properly, their efforts and achievements deserve recognition nonetheless. To facilitate the analysis of the way forged so far, we will be restricting ourselves to the BAC-Basque Autonomous Community in this endeavour. The greatest achievements have in fact been made in this Autonomous Community. From the endeavours carried out, conclusions can be drawn for the other territories: firstly, those done well can be taken as a model, and secondly, those that have failed can provide an unbeatable lesson. Even though in this article we want to assess these schemes from a sociolinguistic perspective, it is essential first of all to look at the legal basis and the context. • **Key Words:** *language scheme, service language, workplace language.*

## 1. HIZKUNTZA-PLANGINTZA ZERTAN DATZA

### I

Robert L. Cooper-ek hiru jardun mota ditu hizkuntza-plangintzaren baitan: plangintza funtzionala, hizkuntza-jabekuntzaren plangintza eta plangintza formala (Cooper, 1997: 122-193). Hiru arlo horiek lantzen dira, neurri eta lehentasun ezberdinekin, herri administrazioen euskararen erabilera planetan.

Egile horren arabera, plangintza funtzionalaren izaera hauxe da: “las actividades deliberadas encaminadas a influir en la distribución de funciones entre las lenguas de una comunidad”. Plangintzaren arlo hori edozein komunikazio-funtziotan gauza daiteke: “puede centrarse en cualquier función comunicativa” (Cooper, 1997: 122, 146). Alor hori da, hain zuzen ere, indarra hartu duena herri administrazioen azken planetan, nahiz eta beste bi plangintza motak ere presente dauden. Horren asmoa zera da: funtzio komunikatibo batzuk gaztelania hutsez betetzetik euskarara ere irekitzea, ahozko eta idatzizko harremanetan. Aldaketa horrek bi kolektibo ditu jomuga: a) orain arte gehienbat gaztelaniaz artatuak izan diren herritarrak, hemendik aurrera euskarazko aukera ere balia dezaten; b) erakunde horietako langileak, euskara (ere) beren lan-hizkuntza izan dadin.

Bestalde, *hizkuntza-jabekuntzaren plangintza*, honetan datza: “*actividades organizadas para promover el aprendizaje de una lengua.*” (Cooper, 1997: 187). Herri administrazioetan, funtzio hori gauzatzen da langileak hizkuntzan gaitzeko egiten diren ahaleginetan, horrela eginez lanpostuei ezarritako hizkuntza-eskakizunak bete ditzaten edo lan-jardunerako beharrezkoak diren trebetasun zehatzak eskura ditzaten. Horiek izan dira gurean lehenengo planen jomuga nagusiak, baina ez bakarrak.

*Plangintza formalaren* premia zenbait kasutan agertzen da; besteak beste, honakoetan: “*cuando una lengua o variedad lingüística se elige para una función que no ha cumplido anteriormente.*” (Cooper, 1997: 122). Herri administrazioetako zenbait funtziori aurre egin behar zaie euskaraz, lehen aldiz. Hartara, iraganean erdaraz landu izan ohi diren kontzeptu eta edukiei euskarazko ordaina eman behar zaie orain. Erantzun egoki bat eman ahal izateko corpus espezializatua ari da garatzen eta,aldi berean, horren berri ematen duten base terminologikoak sortzen.

Hurrengo lerroetan, Euskadiko Autonomia Erkidegora (EAEra) mugatuko dugu *herri administrazio eta erakundeetan euskararen erabilera normalizatze*ko planen analisia. Izan ere, euskararen eremuak Nafarroako zein Iparraldeko lurak ere bere baitan hartzen baditu ere, hizkuntza horren normalkuntzarako neurririk eraginkorrenak EAEn ari dira ga-

---

***Euskararen eremuak Nafarroako zein Iparraldeko lurak ere bere baitan hartzen baditu ere, hizkuntza horren normalkuntzarako neurririk eraginkorrenak EAEn ari dira garatzen. Hortaz, erkidego horretan aurki daiteke eskarmenturik handiena, ongi egindakotik zein akatsetatik begiratuta.***

**Apirilaren 15eko  
86/1997**

**Dekretuaren 1.  
artikuluaren  
arabera, "EAEn  
dauden herri  
administrazioe-  
kin euskaraz  
jarduteko  
eskubide osoa du  
herritarrak eta,  
beraz, eskubide  
hori bete dadin,  
herri aginteek,  
nork bere  
esparruan,  
euskara zerbitzu-  
zein lan-  
hizkuntza  
modura  
normaltasunez  
erabiltzeko hartu  
beharreko  
erabaki guztiak  
hartuko dituzte".**

ratzen. Hortaz, erkidego horretan aurki daiteke eskarmenturik handiena, ongi egindakotik zein akatsetatik begiratuta.

## **2. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANAK**

### **I**

#### **2.1. Planen oinarrizko eta legezko testuingurua**

Atal hau osatzeko aintzat hartuko da V. Plangintzaldia. EAeko herri administrazio eta erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko planetarako irizpide orokorrak delako dokumentua (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2013b: 11-12), kasu askotan testuari hitzez hitz jarraituz.

*Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana* da herri administrazio bakoitzak bere jardunean burutuko duen hizkuntza politikaren nondik norakoak —helburuak, ekintzak, bitartekoak, epeak— eta jarraibideak jasotzen dituen dokumentua. Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren arabera, "entitate bakoitzak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta gauzatu beharko du" (4. artikulua), eta "bost urteko iraupena izango duten plangintzaldiak ezarriko dira" (5. art.). (...). Aipatu planak indarrean diren lege-arauei (...) jarraiki diseinatu, onartu eta aplikatu behar dira, eta, besteak beste eta gutxienez, ondorengo zehaztapenok jasoko dituzte:

1. Herri administrazio bakoitzaren gaur eguneko hizkuntza egoera, besteak beste honakook: lanpostuen zerrendan hizkuntza eskakizunen gainean jasotakoa, derrigortasun indizea, euskararen erabilerari buruzko argibideak eta apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren xedapenetara egokitzeko hartu eta indarrean dauden neurriak.
2. Hala dagokionean, hizkuntza eskakizunen eta derrigortasun daten aldaketak, eta derrigortasun indize berrira egokitzeko hartu asmo diren neurriak, halakoen beharra baldin bada, administrazio barruko jardunbidea euskaraz egin ahal izatea bermatzeko.
3. Euskara zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza izateko neurriak, besteak beste kontuan hartuz apirilaren 15eko 86/997 Dekretuaren hirugarren kapituluan xedaturikoa nahiz herri administrazio bakoitzak V. plangintzaldirako jarritako helburuak.
4. Euskara lan hizkuntza gisa erabilia izango den funtzioen zehaztapena, lanpostuz lanpostu.
5. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak entitatearen barne nahiz kanpo jarduerako esparru guztietan.

## 6. Kontratazio administratiborako aurreikusitako neurriak.

Euskara eta gaztelania dira EAEn jarduten duten herri administrazioetako hizkuntza ofizialak. Horren ondorioz, biek dute herri administrazioetan ohikotasunez erabilitako hizkuntzak izateko zilegitasuna. Gainera, eta abiapuntu moduan, kontuan hartu behar da azaroaren 24ko 10/1982 Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzko legearen arabera herritarrek aitorturik dutela EAEn kokaturiko herri administrazioekin euskaraz nahiz gaztelaniaz jarduteko eskubidea, herri administrazioa behartuta dagoelarik herritarrak hautaturiko hizkuntzan jardutera, bai herritarra artatzerakoan, bai herritarrak parte hartzen duen espediente eta prozedurak burutzerakoan.

Legeriari begira jarrita, badira hainbaten artean bi erreferentzia Herri Administrazioetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planen legezko testuingurua finkatzeko baliagarri direnak: epaia bata, eta dekretua bestea. Alde batetik, Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 26ko 82/1986 epaiaren arabera, *“hizkuntza bat ofiziala da, gizartean duen indarra eta pisua gorabehera, herri aginteetan eta herri aginteen artean eta haiek subjektu pribatuekin dituzten harremanetan balio osoz eta ondorio juridiko guztiekin ohikotasunez komunikatzeko tresnatzat aitortzen denean”*. Bidezkoa eta legezkoa da, bada, herri administrazioen eta herritarren artean nahiz herri administrazioen beraien barne-jardunean hala herri administrazioen artean euskara ere lan hizkuntza gisa erabiltzea.

Bestetik, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 1. artikulua arabera, *“EAEn dauden herri administrazioekin euskaraz jarduteko eskubide osoa du herritarrak eta, beraz, eskubide hori bete dadin, herri aginteek, nor bere esparruan, euskara zerbitzu- zein lan-hizkuntza modura normaltasunez erabiltzeko hartu beharreko erabaki guztiak hartuko dituzte”*. Administruarekin ahozko zein idatzizko harremanak izaten direnean erabiltzen den hizkuntza izango litzateke *“zerbitzu hizkuntza”*, eta lanpostuari dagozkion zereginak betetzerakoan administruarekin harremanik izan gabe ere erabiltzen den hizkuntza izango litzateke *“lan hizkuntza”*. Aipaturiko *“zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza”* gisa erabilia izateko neurri eraginkorrak hartu eta bururatzea da, hortaz, herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko planen helburu nagusia.

Aurreko erreferente eta agindu formaletatik abiatuz, horrela laburbil daitezke plangintzen bi helburu nagusiak eta beste hiru helburu zehatzak:

- a) Euskara *zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza* gisa erabilia izateko neurri eraginkorrak hartu eta bururatzea.
- b) Helburu horrekin herri administrazio bakoitzak bere jardunean

---

**2008-2012  
denbora tartean  
gauzatu zen IV.  
Plangintzal-  
diaren  
ebaluazioan herri  
administrazioak  
ez ezik,  
lehendabiziko  
aldiz kontuan  
hartu ziren  
sozietate  
publikoak eta  
zuzenbide  
pribatuko  
erakunde  
publikoak ere.**

burutuko duen hizkuntza politika finkatu, plana osatu eta egokitu egingo du, horretarako:

1. Euskara zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza izan dadin, neurriak hartuz.
2. Euskara lan hizkuntza gisa erabilia izango den funtzioen zehaztapena lanpostuz lanpostu eginez.
3. Entitatearen barne nahiz kanpo jarduerako esparru guztietan, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak finkatuz.

Helburu horiek Cooperek bereizitako hiru azpi-plangintzen argira ikusita, hauxe berresten da: bertako Administrazioen Erabilera Planen azken helburua hizkuntza-funtzioen aldaketa eragitea da (plangintza funtzionala, alegia), horretarako hizkuntza-jabekuntzaren plangintza eta plangintza formala baliatuz.

## 2.2 Aztergai diren erakundeak

2008-2012 denbora tartean gauzatu zen IV. Plangintzaldiaren ebaluazioan herri administrazioak ez ezik, lehendabiziko aldiz kontuan hartu ziren sozietate publikoak eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoak ere.

### *Planen hedapena Herri Administrazioan*

Hona hemen azterketa horretan aintzat hartu ziren EAEko herri administrazioak, haien artean erabilera plana abian dutenak zein falta dutenak daudelarik:

**1. taula: Euskal Eutonomia Erkidegoko Herri Administrazioak**

Erakunde motak		Jasotako erantzunak	Erakundeak badu erabilera planik?	
			Bai	Ez
1.- Udalak	251	239	205	34
2.- Mankomunitate, kuadrilla eta partzuergoak	41	31	16	15
3.- Foru Aldundiak eta Batzar Nagusiak	6	6	4	2
4.- Eusko Jaurlaritza eta beraren erakunde autonomiadunak	16	14	13	1
5.- Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa	2	2	1	1
6.- Euskal Herriko Unibertsitatea	1	1	1	0
7.- Herri Kontuen Euskal Epaitegia	1	1	1	0

8.- Lan Harremanen Kontseilua	1	1	0	1
9.- Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	1	1	0	1
10.- Uraren Euskal Agentzia	1	1	0	1
11.- Haurreskolak Partzuergoa	1	1	1	0
12.- Etxepare Euskal Institutua	1	1	0	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>323</b>	<b>299</b>	<b>242</b>	<b>57</b>

Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (2013a: 8-11); taula moldatua.


Galdetegiari emandako erantzunen kopurua inoizko ebaluazioetan jaso den altuena da: 299 erakundeena; alegia, %92 ingurukoa. Izan ere, III. Plangintzaldian erantzun zutenak 275 izan ziren, %85.9, orduko 321eko multzoaren gainean. (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2013a: 8)

Eskuratutako datu horien arabera, ziurtzat jo daiteke erakunde guztien %75ak plana abian duela, erantzun ez dutenen inguruan ezer ziurtatzerik ez dagoelako.

### *Sozietate publikoak eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoak*

Gorago esan bezala, IV. Plangintzaldiaren ebaluazioan aztertu dira lehenengo aldiz sozietate publikoak. Galdetegia EAEko 210 sozietate publikori helarazi zaien. Horietaatik guztietatik, 83k erantzun dute (%40k). (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2013a: 9)

#### 1. grafikoa. Jasotako erantzunak



**Eremu batean eragiteko asmoz sortzen diren planak egoki kudeatu behar dira, arrakastatsuak izango badira. Kudeaketa egoki eta eraginkorraz arduratzen den diziplina management delakoa da.**

Horren ondorioz, ziurta daiteke sozietate publikoen %10 inguruk plana duela, erantzun ez dutenen inguruan ezer ziurtatzerik ez dagoelako.

### 1. koadroa. Planen inguruko hausnarketak

Herri administrazioetik jasotako erantzunen kopurua altua den arren zalantzak pizten zaizkigu erantzuten huts egin dutenen gainean:

- Zergatik ez diote galdesortari erantzun? Zein dira horren arrazoiak? Baliabide falta? Plangintzaren inguruko araudia betetzetik lekutan egotea izango da eta, horregatik, errealitatea ezkutatzeko asmoa? Edo euskararekiko distantzia edo jarrera uzkurra?
- Nolabaiteko jarraipenik egiten zaie erakunde horiei?

Antzeko galdera-sorta egin liteke ere:

- a) Planik abian ez dutela aitortu duten erakundeez.
- b) Sozietate publikoetatik erantzun ez duen gehiengoaz.

Bestalde, plana ezartzeko erakunde bakoitzak autonomia osoa izanik, ba ote planetan murgilduta daudenen artean gutxieneko koordinazio eta elkarlanik?

## 2.3 Planen kudeaketa

Eremu batean eragiteko asmoz sortzen diren planak egoki kudeatu behar dira, arrakastatsuak izango badira. Kudeaketa egoki eta eraginkorraz arduratzen den diziplina *management* delakoa da. Soziolinguistikatik eta, zehatzago, euskara planetan ikuspegi horrek izan ditzakeen onurez ohartarazten digu Xabier Erizek:

Managementeko diziplinak (...) ekarpen bereziak egiten ahal dizkio euskararen eta, oro har, mendeko egoeran dauden hizkuntzen hizkuntza-plangintzari. Bide hori gutxi jorratu da orain arteko literatura soziolinguistikoa.

Management ekintzara bideratutako diziplina da, hizkuntza-plangintza bezala, eta balioak eta praktika lotzen ditu: desiragarria (balioak) dena errealitatera eramateko diziplina da. (Erize, 2013: 36)

Erizeren uste hori gure egiten, egoki deritzogu diziplina horren irakaspenak Administrazioaren Erabilera Planen kudeaketara ekartzeari. Hartara, planek duten xede-taldeak ongi zedarritu beharko dira, management diziplinak dioten bezala: “*Managementen ekarpen nagusia da bezeroa/herritarra erdigunean jartzea: bere nahiak, bere beharrak eta bere erabakimena.*” (Erize, 2013: 36).

Arestian jorratu diren ideien arabera, herri administrazioen planek bi xede-talde dituzte: zerbitzua jasoko duten herritarrena eta zerbitzu hori ematea eginkizun duten langileena. Herritarrengan gaztelaniaren edo euskararen artean hautatzeko ahalmena jartzen denez, planen er-

digunean kokatu beharreko jomugetako bat izango da euskaraz egiteko aukerak zabaltzea, erdarak bide osoa badu-eta. Hori ahalbidetzeko, argi dago langileekin kontatu beharko dela. Beraz, zerbitzua euskaraz emateko kolektibo hori prestatzea ere bada planen bitarteko eta ezinbesteko jomuga; alegia, euskaraz gaitu eta, aldi berean, hizkuntza hori erabil dezaten langileen jarrerak prestatzea.

Erizek proposatzen du euskalgintza euskararen kausa edo ideia soziala saltzen duen enpresa edo erakunde bat bezala hartzea (Erize, 2013: 37):

Herritarrak euskalgintzaren bezero bihurtzen badira eta euskara erosten badiote (euskararen aldeko jarrerak, euskararen ezagutza edo euskararen erabilera) arrakasta izango du euskalgintzak. Bezeroek euskara erosiko dute, edo segituko dute erosten, edo ez dute segituko erosten, edo ez dira hasiko erosten, beren nahi, balioen eta kostuen/onuren balantzearen arabera. Erabakimena, euskararen kausa erosteko edo ez erosteko, bezeroek, herritarrek dute, unean uneko zein iraupen luzeko prozesu indibidual eta kolektiboen bitartez.

(...) managementeko kontzeptuen egokitzapen guztia funtsean bi polo horien inguruan laburbiltzen da. Alegia, zein dago euskara sustatzeko helburuen eta ekimenen erdigunean: herritarrak eta haien behar eta nahi linguistikoak, ala erakunde sustatzaileak eta haien interpretazioak eta nahiak?

Irakaspen nagusietako bat da estrategia bezeroen nahien inguruan antolatuta behar dela (...):

- Herritarren nahi eta balio linguistikoak aztertuz eta ikasiz, euskararen onurak herritar guztiek onartzen dituztela suposatutzat eman gabe.
- Nahi horiek betetzen saiatuz.
- Pentsatu gabe euskalgintzako erakundeen nahiak, berez, herritar guztientzat egokiak izan behar direnik.
- Euskalgintzak orain arteko estrategien azpian izan dituen usteak eta iritziak berraztertuz.

rizeren hitz horietan *euskalgintzaren* ordez, euskara planak jarriko genituzke hemen. Horrela eginez, helburua litzateke *herritarrek* eta herri administrazioetako *langileek* euskara *eros* dezaten. Hau da, erakunde horiek ulertu behar dute euskara plana, kanpo bezeroei -herritarrei- eta barne bezeroei -langileei- saldu behar zaien produktua dela.

IV. plangintzaldia ebaluatzeko txostenak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2013a: 21-27) dakarkigu planen arrakasta oztopa lezaketan langileen joeren berri:

---

***Helburua litzateke herritarrek eta herri administrazioetako langileek euskara eros dezaten. Hau da, erakundeek ulertu behar dute euskara plana, kanpo bezeroei herritarrei eta barne bezeroei langileei saldu behar zaien produktua dela.***

**Azken buruan,  
management  
ikuspegian  
merkatu-  
ikerketak leku  
garrantzitsua du.  
Non dago, baina,  
euskara planen  
inguruko  
merkatu-  
azterketa?**

- Erabilerarik ezak ezagutza murriztu du. /
- Gaur egungo baliabideen balorazioa egin gabe dago. /

## 2. koadroa. Management ikuspegiaren inguruko hausnarketak

Herritar elebidunek herri administrazioko harremanetan euskara ez erabiltzeko dituzten zergatiak edo arrazoiak aztertu beharko liriateke *management* ikuspegitik.

Beste horrenbeste egin beharko litzateke erakunde horietako langileek herritarrekin edo lan-hizkuntza bezala ez erabiltzearen inguruan.

Areago, Erizeri jarraituz eta herritar zein langileak xede-taldetzat hartuz, erantzun egokiak bilatu beharko liriateke ondoko galderai:

- a) Zergatik ez dute *erosten* (erabiltzen) euskara?
- b) Zergatik *erosi* (erabili) beharko lukete euskara? Zerk motibatuko litzuke hautu hori egiteko.
- c) Zer baloratzen dute *bezero* horiek euskararen inguruan? Zer eskatuko liokete euskarari, *produktu* hori *erosteko*?
- d) Zein da euskararen abantaila konpetitiboa?
- e) Merkatu orokorra ala fokalizazioa *bezero* horiek erakartzeko estrategian?
- f) Zer egin euskararen *merkatu-kuota* berriro hazkunde zikloan jartzeko?
- g) Zein da euskararen diferentziazioa, bere *eroslei* eskaintzen dien balio desberdina, euskara erostea eta, oro har, erdara baino garestiago izanda ere, merezi izateko?
- h) Zer nahi dute euskara planen xede-taldeek?

Azken buruan, management ikuspegian merkatu-ikerketak leku garrantzitsua du. Non dago, baina, euskara planen inguruko *merkatu-azterketa*?

## 2.4 Planen emaitzak: erabilera datuak


Administrazioko Erabilera Planen azken helburua funtzio aldaketa eragitea da: euskara, zerbitzu- eta lan-hizkuntza bihurtzea. Hortaz, hizkuntza horren ahozko zein idatzizko erabilerek zenbateko pisu edo hedapen lortu duten aztertzea da planen arrakasta maila neurtzeko modurik zuzenena. Zeregin horretan berriz jo dugu *Euskararen erabileraren normalizazioa herri administrazioetan. IV. plangintzaldia (2008-2012). Ebaluazio txostena* (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2013a: 21-27), edukiak hitzez hitz hartuta kasu askotan.

### *Ahozko komunikazioa*

Ahozko komunikazioan hiru alor hauek aztertu dira: a) Erakundeen kanpoko hizkuntza eskaera; b) Erakundeen kanpo harremanak; c) Erakundeen barne harremanak.

**Ahozko kanpo hizkuntza eskaera:** Herritarrak, beste administrazioak edo beste sailak herri erakundearekin harremanetan jartzen direnean ahoz erabili duten hizkuntza aztertu da.

2. grafikoa. Ahozko kanpo hizkuntza eskaera




**Administrazioko Erabilera Planen azken helburua funtzio aldaketa eragitea da: euskara, zerbitzu- eta lan-hizkuntza bihurtzea. Hortaz, hizkuntza horren ahozko zein idatzizko erabilerek zenbateko pisu edo hedapen lortu duten aztertzea da planen arrakasta maila neurtzeko modurik zuzenena.**

Ahozko kanpo harremanetan ez dago alde handirik edozein dela ere harremanetarako solaskidea (herritarra, beste administrazio bat...) eta kasu guztietan euskara gaztelania baino gutxiago erabiltzen da. Oraingo datuen arabera, beraz, %45-55 artean dago ahozko erabilera eta III. plangintzaldiaren ebaluazioan erabilera %30-40 artean kokatzen zen, edozein zela ere harremanetarako solaskidea.

**Erakundeen ahozko kanpo harremanak:** Telefonoz eta leihatilan erabiltzen den euskararen pisuaz galdetu da, bai harrera egiteko garaian erabiltzen dena, eta baita elkarrizketa osoan zehar erabilitakoa ere. Baita jendaurreko ekitaldietan erabili den hizkuntza ere.

3. Grafikoa. Erakundeen ahozko kanpo harremanak




**Erakundeen %76tik gorakoak telefonoa euskaraz hartzen duela adierazten du. Betiere, dei guztietatik %46tan jarraitzen da elkarrizketa euskaraz. Leihatilan harrera egiterakoan, euskara harremanen %71n erabiltzen da eta elkarrizketara pasatzerakoan, berriz, ia %50ean.**

Erakundeen %76tik gorakoak telefonoa euskaraz hartzen duela adierazten du. Betiere, dei guztietatik %46tan jarraitzen da elkarrizketa euskaraz. Leihatilan harrera egiterakoan, euskara harremanen %71n erabiltzen da eta elkarrizketara pasatzerakoan, berriz, ia %50ean. Harreratik elkarrizketarako jauzi horietan hainbat faktorek eragiten dute, eta faktore horietako batzuk, hemen ere, ez dira erakundeen esku egoten (beste pertsonak euskaraz ez jakitea; euskaraz jakin arren, hainbat gai lantzeko garaian gaztelania erabiltzea nahiago izatea seguruago sentitzen delako...). Azkenik, jendaurreko ekitaldietan erabiltzen den hizkuntzaren inguruan, esan daiteke euskarak baduela presentzia, %60an erabiltzen dela baitiote datuek.

**Erakundeen ahozko barne harremanak:** Telefonozko harrera, telefonozko elkarrizketa, lan bilerak eta harreman informalak aztertu dira.

4. grafikoa. Erakundearen ahozko barne harremanetako euskararen erabilera



Lan bileretan izan ezik, beste harreman mota guztietan erditik gora euskaraz egiten dela adierazten dute datuek. Erakundeen artean badago aldea barne harremanetan euskararen erabilierari dagokionez.

Batetik, barne harremanetan euskara batez ere erabiltzen duten erakundeak daude, Haurreskolak Partzuergoa eta Etxepare Institutua, eta bestetik, nagusiki gaztelania erabiltzen dutenak, Herri Kontuen Euskal Epaitegia eta Euskal Herriko Unibertsitatea. Tartean, erdiak baino gehiagok erabiltzen du euskara batez ere telefonozko harreran, baina erakundeen arteko datuak oso aldakorak dira beste hiru arloei dagozkien


nez. Udalen kasuan erdiak baino gehiagok erabiltzen du euskara lau arlotan. Foru Aldundietan eta Batzar Nagusietan, telefonozko harreraren erdiak baino gehiagok ere erabiltzen du, baina heren batera doi-doi iristen dira lan bilera eta harreman informaletako euskararen erabileran. (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2013a: 26)

### *Idatzizko komunikazioa*

Administrazioetako idatzizko komunikazioak aztertzeko kontuan hartu diren itemak tramitazio telematikoak, erakundeen kanpoko hizkuntza eskaera, erakundeen kanpo harremanak, euskara sortze hizkuntza eta erakundeen barne harremanak izan dira. Hemen, gehiegi ez luzatzearen, erakundeen kanpoko hizkuntza eskaera, erakundearen idatzizko kanpo harremanak eta euskara sortze hizkuntza baino ez dira jasoko.

**Erakundeen idatzizko kanpoko hizkuntza eskaera:** Erakundeen idatzizko kanpoko hizkuntza eskaera aztertzerakoan, bai herritarrak eta baita beste administrazioak ere erakunde batekin idatziz harremanetan jartzeko garaian erabiltzen duten hizkuntza aztertu da.

5. grafikoa. Jasotako idatzizko komunikazioak (%)




Herritarrak, oro har, hizkuntza batean edo bestean zuzentzen dira administrazioetara; hau da, ia ez dute eskaerarik ele bietan egiten. Hala, euskara harremanen %31k erabiltzen dute, eta gaztelania, aldiz, %61 inguruk. Administrazioen kasua ezberdina da, araututa baitago administrazioen arteko harremanetan bi hizkuntzak erabili behar direla. Horietan elebitasuna da nagusi: %63.

**Erakundearen idatzizko kanpo harremanak:** Atal honetan administrazioetatik herritarrei, beste administrazioei eta erakunde barruko

**Herritarrak, oro har, hizkuntza batean edo bestean zuzentzen dira administrazio- etara; hau da, ia ez dute eskaerarik ele bietan egiten. Hala, euskara harremanen %31k erabiltzen dute, eta gaztelania, aldiz, %61 inguruk.**

atal edo sailei helarazten zaizkien idatzietan erabiltzen den hizkuntza aztertu da.

### 6. grafikoa Erakundearen idatzizko kanpo harremanak (%)



Herritarrei igorritako komunikazioetan erabiltzen da euskara gehien, euskara eta idazki elebidunak batuz gero. Gaztelania hutsezko komunikazioa %30 inguruan kokatzen da. Antzeko datuak jaso dira beste administrazioei eta barruko atalei bidaltzen zaizkien eretzean, horietan guztietan euskarak idatzizko komunikazioaren bi heren inguru osatzen du.

### Euskara sortze hizkuntza

Erakundearen idatzizko komunikazioan sortutako komunikazioetatik zenbat izan diren jatorriz euskaraz eta zenbat gaztelaniatik euskarara itzulitakoak ere aztertu dira. Itzulpena sortze hizkuntzaren ordezkotatik bihurtu da; izan ere, erakundeetatik igortzen diren dokumentuetatik sortze hizkuntza euskara dutenak %36.64 dira eta gaztelaniatik euskarara itzulpena egiten dutenak %57.86 dira.

### 3. koadroa. Emaitzen inguruko hausnarketak

- a) Herri erakundearen %92k erantzun dio galdesortari eta batez bestean erabilera txukuna da. Baina, falta diren erakundearen emaitzak apalagoak izango dira, seguru asko. Zenbat, baina?
- b) Bestalde, zalantza metodologikoak ere badaude:
  - Zalantza da erakundea txikia izan edo handia izan, ea guztiei pisu bera eman ote zaien. Batean edo bestean sortzen diren harreman multzoak, tamainoz behintzat, oso ezberdinak izango dira-eta.
  - Informazio aitortua da eta subjektibotasunak emaitzetan eragin lezake. Ondo legoke informazio hori beste iturri mota objektiboekin osatzea.


### 3. EMAITZEN BALORAZIO SOZIOLINGUISTIKOA

Hurrengo lerroetan herri administrazioetako planen ebaluazioak eskaini dizkiguten zenbait ondorio aztertzeari ekingo diogu. Eginkizun hori irizpide soziolinguistikoko soiletan oinarritu nahi dugu; ez, beraz ikuspegi juridikotan. Alegia, ahal den neurrian hizkuntza gutxitu baten normalkuntzaren ikuspuntu teorikotik zein aplikatutik heldu nahi diogu aztergaiari.

#### 3.1 Analisi-eredu teorikoa

Gogoeta antolatu eta sistematizatzeko asmoz, azter ditzagun Administrazioetako Erabilera Planen emaitzak eredu soziolinguistikoko baten argira. Horretarako, egoera elebidun edo eleanitz batean, hizkuntza bat erabilia izan dadin nolako bermeak behar diren azaltzen duen eredu bat baliatuko dugu (Martínez de Luna, Suberbiola eta Basurto, 2009: 163-195), originaletik egindako moldaketa xume batzuk tarteko.

##### 1. irudia. Euskararen erabilera oinarriak



Egoera elebidun edo eleanitz batean hizkuntzetako bat erabilia izan dadin, bete behar diren baldintzak hiru mailatan sailkatuko ditugu. Maila bat, indibiduala edo norbanakoa da. Beste biak, aldiz, sozialak: maila mikrosozialekoa bata, eta maila makrosozialekoa bestea. Hiru dimentsio edo maila horiek elkarri eragiten diote *continuum* bat osatuz.

Hiru maila horietako baldintzek zerikusia dute planekin. Hemen, dugun aztergaira egokituz, maila makrosoziala azaltzeari ekingo diogu lehendabizi, norbanako mailarekin segituz eta, azkenean, maila mikro-sozialarekin bukatuz.

### **3.2 Gizartearen dimentsio makrosoziala**

Gizarteko maila makroaz hitz egiten dugunean, Joshua Fishmanek definitu zituen *gizarteko jardungunez* ari gara; hau da, dimentsio orokor eta objektiboaz ari gara. Norbanakoarengandik eta bere hurbileko egoeretatik haratago ematen da, eta bere baitan biltzen ditu maila mikro-sozialekoak diren egunerokotasuneko *gizarte egoerak* (Fishman, 1979: 73-75). Azken buruan, nolako baldintzak hizkuntza baten maila makrosozialeko *jardungunetan*, halako aukerak hizkuntza hori erabilia izan dadin maila mikrosozialeko *egoeretan*.

Gizartearen dimentsio makrosozialean honako osagai hauek aurkitzen ditugu nagusiki: a) estatus juridikoa; b) gizartearen babes maila; c) hizkuntza politika.

#### **Estatus Juridikoa**

Eremu politiko-administratibo jakin batean hizkuntzek duten estatus juridikoak ahalbidetu edo oztopa ditzake hizkuntza-politikaren lanketa eta Administrazioako Erabilera Planen sorrera zein garapena. Euskararen kasuan, hain zuzen, jakina da estatus juridikoak ezberdinak daudela eremu politiko-administratibo bakoitzean.

Gure analisia EAera mugatzen denez, gogora dezagun eremu horretako Autonomia Estatutuaren ondorioz badagoela Administrazioako Erabilera Planen izaera bete-betean markatzen duten legedi eta araudia. Zehatzago, *Euskararen erabilera normalizatzeko Legeak*<sup>2</sup> horrela dio, bere 5. eta 4. artikuluetan, hurrenez hurren:

*—Euskal Herriko herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz.*

*—Herri-agintek Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza dela-eta inor diskriminatu ez dadin zainduko dute eta neurri egokiak hartuko dituzte.*

5. artikulua horretan herritarrei aitortzen zaien euskara erabiltzeko eskubideak, herri administrazioaren izaeran zein funtzionamenduan eragiten du. Bestalde, 4. artikulua inoren diskriminazio linguistikoa saihesteko neurriak hartzera behartzen ditu herri-agintariak. Alegia, bi artikulua horiek ezartzen dituztenak bete ahal izateko, herri administra-

zioek ziurtatu beharko dute gaztelaniaren eta euskararen arteko berdintasuna. Horrela baino ez dute herritarrek aukerarik izango izapideak gaztelaniaz ala euskaraz bideratzeko, berdintasun egoeran.

IV. Planaren ebaluazio txostenetik (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2013a: 66-68) hartu diren hobekuntzarako puntu hauek, es-tatus juridikoaren osatze edota garapenean koka daitezke:

*— Estatuko Administrazioako langileak ez daude apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren ezarpen eremuaren barruan. / Estatu mailako administrazio-etatik Euskal Herri Administrazioa transferitutako langileek ez dute derrigortasun datarik. / Herri administrazio batzuek ez dute erabilera plana onartuta. / Hainbat erakundek oraindik ez dute erabaki hizkuntza irizpiderik. / Derrigortasun data duten hainbat lanpostudunek ez egiaztatzea euren hizkuntza eskakizuna. / Hizkuntza irizpideak betetzea egokia ez denean, ez dago betearazteko prozedurarik. Betetze maila behar bestekoa ez denean, ez dago neurri zuzentzailearik.*

#### 4. koadroa. Estatus juridikoaren inguruko hausnarketak

Hutsune juridikoak daude Legeak agintzen duena betetzeko:

- a) Nola bideratu hizkuntza hautuaren eskubidea, guztion eskubideak errespetatuz eta diskriminazio arriskua ekidinez?
- b) Ez da erraza eta euskararen aldeko zenbait neurri hartzeko segurtasun edo berme juridiko sendorik eza dago:
  - Horrek oztopatzen du planen garapena, batetik.
  - Bestetik, iritzi publikoaren aurrean zalantzak sortarazten ditu hizkuntza politika eta planen zilegitasunaz: maila juridikoko nahasmenduak higatu edo lausotu lezake gizartearen euskararekiko aldekotasuna.

Araudia ez da betetzen eta horrek ez du ondorioirik. Zertarako daude legedia eta araudia?

#### *Gizartearen babesa*

Estatus juridikoarekin batera dugu —ez, halaber, norabide berean— gizarteak hizkuntzari eskaintzen dion babes maila. Izan ere, legedi eta araudia gizartearen dinamikaren aurretik, parean edo atzetik joan daiteke; baita aurkako norabidean ere.

Adibidez, legeak hizkuntza baten onarpen osoa eta bulkada eman diezaiokeen arren, gizarteak —edo gizartearen sektore zabal batek— saihestu dezake hizkuntza hori baliatzea, korapilo ideologiko, pragmatiko edo psiko-soziologiko trinko bat tarteko. Beste muturrean, baliteke hizkuntzetako baten aldarria gizarteak egin arren, agintari publikoek horri muzin egin eta onarpen juridikoa eta politika baten garapena ukatzea.

***Nola bideratu hizkuntza hautuaren eskubidea, guztion eskubideak errespetatuz eta diskriminazio arriskua ekidinez?***

***Ez da erraza eta euskararen aldeko zenbait neurri hartzeko segurtasun edo berme juridiko sendorik eza dago.***

**Diseinuaren  
inguruan  
zalantzak daude:  
Derrigortasun  
indizeak  
euskaldunen  
proporzio txikia  
duten udaletako  
euskaldunak  
zigortzen ditu;  
alegia, euskaldun  
gehien bizi diren  
horietakoak.  
Hizkuntza  
eskakizunak ez  
dira egokiak bete  
beharreko  
funtziotarako.**

Horrela, IV. Planaren ebaluazio txostenetik hartuak diren hobetu beharreko puntu batzuk (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2013a: 66-68), euskararen gaia gizartean ulertzeko dagoen moduari lepora da-kizkiok:

- *Zeharkakotasun falta: euskara planen kudeaketa Euskara Zerbitzuaren barruan egotea, besteak beste erakunde-arduradunen inplikazioa behar adinakoa ez izateagatik. / Zeharkakotasuna lortzeko zailtasunak eta Aitzindarritza falta 3 eta 4. tipologietako udaletan. / Hizkuntza ohiturak eta pertzepzioak. / Hizkuntza irizpideak betetzen ez direnean, Euskara Zerbitzura bakarrik biltzen da ardura hau.*

#### 5. koadroa. Gizartearen babesaren inguruko hausnarketak

Euskara normaltzea ez da ulertzen zehar-lerro bezala, ez -agintariengandik hasita- denon erantzukizun gisa, baizik eta modu sektorialean: "euskara zerbitzuaren ardura" da.

Ez da oraindik ulertu -ez da horrela azaldu- hizkuntza berrezkutatzeak *gizarte aldaketa* daramala bere baitan.

Administrazioko Erabilera Planak herritarren hizkuntza hautuari egoki erantzutera eta euskara ere lan-hizkuntza bihurtzera mugatzen dira. Ez dute beren gain hartzen gizartearen hizkuntzarekiko babes mailan eragitea. Ardura hori Hizkuntza Politika orokorrari dagokio, ez herri administrazioetako planei.

Hortaz, gure aztergaitik at gelditu behar du gizarte babesak? Arestian esan dugu eredu teorikoaren hiru mailek -norbanakoa, mikrosoziala eta makrosozialak- elkarri eragiten diotela. Ideia horrekin bat eginez, norbanakoen mailan ere azter genezaken zenbait kontu, maila makrosozial honetako gizartearen babes mailarekin jar dezakegu harremanetan.

#### *Hizkuntza politika*

Jarraian zerrendatzen diren ahuleziak hizkuntza politika baten baitan egiten diren planei dagozkie (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2013a: 66-68), batzuk planen diseinuari eta beste batzuk kudeaketari egotz d

- *Planen diseinuaz: Ardura handiko hainbat lanpostudunek euskararen aldetik behar besteko mailarik ez izatea. / Idatzizko lan hizkuntza: Hainbat tresna eta aplikazio informatiko gaztelania hutsez daude; ikuspegi elebakarretik eginda daude. / Kanpo irudia: Hizkuntza paisaia oraindik bermatu barik dago gun eurdaldunenetako zenbait administrazio eta erakundetan. Arazo berezia dago behin-behineko iragarkietan. Web orrietako eduki guztiak ez daude euskaraz, batez ere, 1 eta 2. tipologietako udaletan. / Zerbitzuen baliabide falta 1 eta 2. tipologietako udaletan. / Erabilera planen*

jarraipenik eza. / Metodologia estandarraren falta. / Hainbat erakunde ezarrita dituzte hizkuntza irizpideak, baina ahulezia hauek agertzen dituzte: Batzuetan ez da betetze mailaren jarraipenik egiten. /

#### 6. koadroa. Hizkuntza politikaren inguruko hausnarketak

Planen diseinua ez da sakon ebaluatzen.

Azken buruan, hizkuntza politika eraginkorrak planen kudeaketa efikaz eta efizientea izan behar du oinarri, arlo guztiak aintzat hartzen dituena.

Diseinuaren inguruan zalantzak daude:

- a) Derrigortasun indizeak euskaldunen proportzio txikia duten udaletako euskaldunak zigortzen ditu; alegia, euskaldun gehien bizi diren horietakoak.
- b) Hizkuntza eskakizunak ez dira egokiak bete beharreko funtzionarako.

### 3.3 Norbanako dimentsioa

Norbanako dimentsioan nagusiki bi osagai auki ditzakegu: gaitasun erlatiboa eta motibazioa. Ukipen egoeran dauden hizkuntza batzuen hiztunek hizkuntza horietako baten alde egin dezaten, maila indibidualko baldintza horiek nahikotasunez bete beharko dituzte, Sánchez Carrión “Txepetx”-ek adierazi zuen bezala (Sánchez Carrión, 1991: 35-64).

Hizkuntzaren *gaitasunetik* edo *ezagutzatik* hasita, beharrezkoa da *guxieneko maila* bat izatea. Baina ez hori bakarrik. Beharrezkoa da, halaber, gaitasun hori ukipen egoeran dauden beste hizkuntzetan dugun gaitasun mailaren *parekoa* edo *hobea* izatea. Hau da, hizkuntzaren *ezagutza erlatiboari* erreparatu behar zaio; izan ere, oso litekeena da pertsonak, bi edo hizkuntza gehiago jakitean, hautatzea espontaneoki errazen suertatzen zaiona, horretaz kontziente izanda ala ez.

Horrekin batera, beharrezkoa da ere hizkuntza horren aldeko motibazioak eta jarrerak izatea, horiek edozein oinarri dutela ere: pragmatikoa, sinbolikoa, integratzailea edo besteren bat. Motibazio eta jarrera horiek kontzienteak ala inkontzienteak izan daitezke. Aldeko motibazio eta jarrerak mota askokoak badira, handiagoa izango da hizkuntza horretara jotzeko pertsonak sentituko duen bulkada.

Herri administrazioaren euskararen erabilera planetan, bi osagai horiek —gaitasun erlatiboa eta motibazio nahikoa— ezinbestekoak dira herritarrengan zein langile publikoengan. Herritarrek, gaitasun nahikoa izanda ere, motibaziorik falta izanez gero ez dute euskara baliatuko aurrera eramanez behar dituzten izapideetan; kasu horretan ez da *hizkuntza-arazorik* sortuko: dena erdaraz bideratuko baita. Baina herritar euskaldunek euskaraz jardun nahi izanez gero, jokoan sartzen dira bezero horiek artatuko dituzten langile publikoak. Azken horiek ere eus-

**Hizkuntzaren ezagutza erlatiboari erreparatu behar zaio; izan ere, oso litekeena da pertsonak, bi edo hizkuntza gehiago jakitean, hautatzea espontaneoki errazen suertatzen zaiona, horretaz kontziente izanda ala ez.**

**Herri  
administra-  
zioaren  
euskararen  
erabilera  
planetan, bi  
osagai horiek  
-gaitasun  
erlatiboa eta  
motibazio  
nahikoa  
ezinbestekoak  
dira  
herritarren  
zein langile  
publikoengan.**

karaz jakin beharko dute; gaitasun nahikoa izan beharko dute, ezinbestean. Baina, zer gertatzen da motibazio nahikorik ez badute, adibidez, euskararekiko beren jarrera epela tarteko?

### Hizkuntza-gaitasun erlatiboa

Administrazioko Erabilera Planen azterketa honetan ez dago euskarazko gaitasuna modu erlatiboan -erdarazkoarekin alderatuta- neurtuta. Beste bi informazio mota ditugu, ordea: lanpostuei ezarritako hizkuntza eskakizunen betetze maila, bata, eta erakunde-ordezkarien ezagutza maila, bestea.

**Hizkuntza Eskakizunen betetze maila:** Analisi honetan adierazle hauei erreparatu zaie: a) Derrigortasun data ezarria izanik, lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten langile titularrak edo okupatzaileak; b) Lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna izan ez arren, hizkuntza eskakizun baxuagoren bat egiaztatua duten titularrak edo okupatzaileak; c) Hizkuntza eskakizunik egiaztatu ez duten langile titularrak edo okupatzaileak; d) Adinagatik salbuesteko aukera duten titularren kopurua zehazten da.

## 2. taula. Hizkuntza eskakizunen betetze maila Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioetan<sup>3</sup>

Erakunde motak	Lanpostuak guztira	DD <sup>4</sup> dutenak				DD duten langile titularrak eta okupatzaileak							
		DD dutenak guztira		Hutsik edo inform. gabe <sup>5</sup>	Tit. edo okup. beteak <sup>6</sup>	Egiaztatu dutenak		Baxuagoren bat egiaztatua		Ez du ezer egiaztatu		Salbuestiak	
		kop.	%	kop.	kop.	kop.	%	kop.	%	kop.	%	kop.	%
Udalak	17 282	9 251	53.53	580	8 671	6 891	79.47	786	9.06	585	6.75	409	4.72
Mankomunitate, kuadrilla eta partzuergoak	819	401	48.96	33	368	275	74.73	26	7.07	27	7.34	40	10.87
Foru Aldundiak eta Batzar Nagusiak	8 204	4 827	58.84	211	4 616	3 788	82.06	280	6.07	255	5.52	293	6.35
Eusko Jaurilaritza eta beraren erakunde autonomiadunak	6 644	3 016	45.39	49	2 967	2 518	84.87	186	6.27	129	4.35	134	4.52
Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa	143	102	71.33	3	99	68	68.69	8	8.08	7	7.07	16	16.16
Euskal Herriko Unibertsitatea	1 548	799	51.61	7	792	715	90.28	14	1.77	23	2.90	40	5.05
Herri Kontuen Euskal Epaitegia	78	34	43.59	3	31	24	77.42	4	12.90	1	3.23	2	6.45
Lan Harremanen Kontseilua	16	8	50	1	7	7	100	0	0	0	0	0	0

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	16	7	43.75	3	4	4	100	0	0	0	0	0	0
Étxepare Euskal Institutua	8	8	100	0	8	8	100	0	0	0	0	0	0
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	16	7	43.75	0	7	6	85.71	1	14.29	0	0	0	0
Haurreskolak Partzuergoa	1 063	1 063	100	0	1 063	1 062	99.91	1	0.09	0	0	0	0
GUZTIRA	35 837	19 523	% 54.48	890	18 633	15 366	% 82.47	1 306	% 7.01	1 027	% 5.51	934	% 5.01

Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (2013a: 14).

Lanpostuen %54.5ek (19.523 lanpostuk) du derrigortasun data ezarria, eta horietatik 18.633 daude beteta. Horien artean, langile titular edo okupatzaileen %82.47k egiaztatua du dagokion hizkuntza eskakizuna. Hizkuntza eskakizun bat egiaztatu dutenak eta dagokiena baino baxuagoren bat dutenak kontuan hartzen baditugu, berriz, portzentaje hau %90 ingurura gerturatzen da.

Bestalde, derrigortasun datarik ez duten lanpostuen kopurua %45.5ekoa izanik, horien %23.5ek egiaztatu du dagokiona eta %12k dagokiona baino baxuagoren bat. Lanpostu horien titularren erdiak baino gehiagok, %64k, ez du ezer egiaztatu. (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2013a: 14-18)

Jarraian zerrendatzen dira hizkuntza eskakizunen inguruan IV. Planaren balorazioan agertzen diren hobetu beharreko puntuak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2013a: 66-68):

- **Hizkuntza eskakizunez:** Hizkuntza eskakizunen sistemak ahuleziak ditu. / 3 eta 4. tipologietako udaletan: hizkuntza eskakizuna egiaztatu barik duten langileak egoteak zailtzen ditu idatzizko harremanak. / Erabilerarik ezak ezagutza murriztu du. /

**Erakunde-ordezkarien ezagutza:** Bestalde, galdetu da erakunde-ordezkariek euskaraz ulertzen duten, hitz egiteko, idazteko eta irakurtzeko gai diren, eta euskaraz lan egiteko mailarik baduten. Hala ere, puntu hau maila mikrosozialerako gordetzea hobetsi da.

**Lanpostuen %54.5ek (19.523 lanpostuk) du derrigortasun data ezarria, eta horietatik 18.633 daude beteta. Horien artean, langile titular edo okupatzaileen %82.47k egiaztatua du dagokion hizkuntza eskakizuna.**

**Bestalde,  
derrigortasun  
datarik ez duten  
lanpostuen  
kopurua  
%45.5ekoa  
izanik, horien  
%23.5ek  
egiaztatu du  
dagokiona.**

## 7. koadroa. Gaitasun erlatiboaren inguruko hausnarketak

Herri administrazioiko IV. Planaren bukaeran, hizkuntza eskakizunerako derrigortasun data ezarria duten lanpostuak erdia pasatxo baino ez da:

- a) Ez da gaitasuna ziurtatzeko ahalegin nahikorik egiten.

Hizkuntza eskakizunen diseinua eta horren jarraipenaren egokitasuna zalantzan jar daitezke:

- b) Ezarritako eskakizun maila nahikoa ote lanpostuko funtzioak betetzeko?

### Motibazioak

Administrazioaren Euskara Planetarako motibazioa eta jarrerak hain osagai garrantzitsuak izanagatik, *Euskararen erabilerearen normalizazioa herri administrazioetan. IV. plangintzaldia (2008-2012)* delako txostenak ez digu horren gaineko informazio handirik eskaintzen:

Orokorrean, langileek ondo baloratzen dute erabilera plana edukitzea. Dena den, kontrako jarrerarik egon ez arren, langileen parte hartzeak handiagoa izan beharko lukeela aipatzen da herri administrazio eta erakunde gehienetan. (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2013a: 57).

Plana onartzearen aldeko jarrerak lan-jardunean isla zuzenik ez izatea omen da espero litekeena, Cooperen arabera: “La normalización lingüística tiene más probabilidades de éxito en cuanto a las actitudes que en cuanto a los comportamientos.” (Cooper, 1997: 217)

Dena den, zalantza handiak dauzkagu kontrako jarrerarik ezaren inguruan. Gure ustez, egokiagoa litzateke beste honako hau esatea: “... kontrako jarrerarik langileek ez adierazi arren...”. Izan ere, erakundeen helburu baten kontrako jarrerarik aitortzea ez zaio erraza suertatuko horietan diharduen hainbat langileri; baina, pentsatzekoa da egon egongo direla motibazio falta edota kontrako jarrerak dituzten langileak.

Motibazio sistema ongi ezagutzeko zailtasunak egon daitezke. Motibazioen maila kontzientea aitortua izan daiteke, baina ez beti. Hortaz, Administrazioiko Euskara Planaren kontrako motibazio edota jarrerak daudenean, batzuetan isilpean gorde daitezke. Areago, gure baitan biltzen diren motibazio guztiak ez ditugu guk geuk ere ezagutzen; motibazio *ezkontzienteak* dira (emoziozkoak, adibidez) eta, hortaz, kontziente bihurtu bitartean adierazteko zailak. Horrek guztiak agerian jartzen du zein zaila den inkesta baten bidez planen kontrako jarrerak ongi antzematea.

Hala ere, esandako txostenean badaude hurrengo planei begira motibazioen garrantzia agerian uzten duten zenbait aipamen. (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2013a: 55, 57). Era berean, motibaziorako garrantzitsua izan daitekeen puntu ahularen bat aipatua da IV. Planaren balorazioan (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2013a: 66-68):

—**Komunikazioa:** Hainbat erakundek ezarrita dituzte hizkuntza irizpideak, baina ez dira ondo komunikatu erakundean. /

### 8. koadroa, Motibazioaren inguruko hausnarketak

Planen emaitzetan motibazioak izan lezakeen eraginaz jabetuta, deigarri egiten da horren inguruan dagoen ezagutza falta:

- b) Herritarrek, euskaraz egiteko ala ez egiteko, duten motibazioen inguruan.
- c) Administrazioetako langileek lan-jardunean erabil dezaten ala ez.

Planen komunikazio egokirik ezak horiekiko motibazio maila apaldu dezake langileengan.

Maila makrosoziologikoan kokatu dugun gizarte babesari buruz hitz egitean aipatu dugu “euskara normaltea ez dela ulertzen zehar-lerro bezala, denon -agintariengandik hasita-erantzukizun gisa”. Hizkuntza normalkuntzarekiko gizarte zabalean dagoen distantzia horrek eragingo du norbanakoen motibazio maila apala izan dadin, kasu askotan.

### 3.4 Gizartearen dimentsio mikrosoziala

Gizarte dimentsio mikrosozialean *egoerak* ditugu, Joshua Fishmanek definitzen dituen bezala. *Gizarte egoerak* hiru osagai zehatz eta jakinak biltzen ditu bere baitara: harreman funtzionala, kokapena eta denbora tarteak. (Fishman, 1979: 69). *Egoera* egunerokotasunaren bitartez gorpuzten eta gauzatzen da, ohiko funtzio sozial guztiak aurrera atera ahal izateko osatzen ditugun harreman-sareen bidez: etxean edo familian, laneko esparruan, lagunen artean, aisialdiko kideekin ari garenean, e.a. Hizkuntzaren erabilera, azken buruan, maila honetan gauzatzen da; ikuspegi horretatik, maila mikrosoziala eta norbanako maila bigarren plano batean gelditzen dira.

Fishmanek aipatutako *gizarte egoeretan* osatzen diren harreman-sareek hiru baldintza ezberdin bete behar dituzte (ikus 1. irudia) hizkuntzaren erabilera ahalbidetzeko: solaskideen ageriko gaitasuna, harremanen trinkotasuna eta hizkuntza-hautua egiteko ahalmena.

Herri administrazioari erreparatu, zerbitzu batera biltzen diren kideek (langile, zerbitzu-buru, zuzendari, herritar eta abarrek) izapideko rolak betetzen dituztenean gauzatzen dira *egoera sozial* horiek. Hau da, lankideen arteko lan-harremanetan zein lankide/herritarren artekoetan. Elkarrekintza horietan hizkuntza bat —gutxienez— partekatzen dugu, ezinbestez. Gizarte berean bi hizkuntza -edo gehiago- ukipen egoeran daudenean, halako harremanetan hobesten den hizkuntza-hautua ez da berez gertatzen, baizik eta *egoera sozialek* ezarritako baldintzen arabera.

Aurrez aipatutako norbanakoen gaitasunaz eta motibazioaz gain, Amonarriek diosku hizkuntza jakin bat erabili ahal izateko beharrezkoa izango dela beste baldintza hauek ere betetzea: a) harreman sare horietan

**Motibazio sistema ongi ezagutzeko zailtasunak egon daitezke. Motibazioen maila kontzientea aitortua izan daiteke, baina ez beti. Hortaz, Administrazioko Euskara Planaren kontrako motibazio edota jarrerak daudenean, batzuetan isilpean gorde daitezke. Areago, gure baitan biltzen diren motibazio guztiak ez ditugu guk geuk ere ezagutzen; motibazio ez-kontzienteak dira (emoziozkoak, adibidez) eta, hortaz, kontziente bihurtu bitartean adierazteko zailak.**

**Gizarte dimentsio mikrosozialean egoerak ditugu, Joshua Fishmanek definitzen dituen bezala. Gizarte egoerak hiru osagai zehatz eta jakinak biltzen ditu bere baitara: harreman funtzionala, kokapena eta denbora tartea.**

hizkuntza bera partekatzen duten beste pertsonak egotea; b) hiztunak beste hiztun horiek hizkuntza horretako hiztun gisa identifikatzea, alegia, hizkuntza horretan aritzeko gai direla jakitea; c) talde batez ari garen kasuetan, beharrezkoa izango da taldeko kide gehienak hizkuntza horretan aritzeko gai izatea ere (Amonarriz, 1991: 40-41).

Baldintza horiek egoera sozial jakin batean betetzen badira, orduan izango da posible hizkuntza jakin batean arituko den harreman sarea osatzea eta mantentzea. Dena den, ez da nahikoa aipatutako baldintzak betetzen dituen hiztun kopuru handia. Hiztun horiek dituzten elkarren arteko harremanek trinko ehunduta izan behar dute; era horretan hizkuntza komunitatea -edo azpi komunitatea- osatuko dute.

Badago horiez gain, ordea, analisi-eredu teorikoan aipatzen den hirugarren baldintza bat: hizkuntza-hautua egiteko ahalmena. Ahalmen hori, norberaren eta solaskideen hizkuntza-gaitasunetik harago, botere harremanen menpe dago. Alegia, hizkuntza hautua, neurri handian, botere harremanen arabera izango da. Familiako hizkuntzan gurasoek seme-alabei ezartzen dieten bezala, lantokian nagusiak eta taldeburuak dira hautua egiten dutenak eta normalean beste langileek men egiten dute.

Herri-administrazioaren kasuan, aurreko baldintza horiek bi plano ezberdinetan aztertu behar dira: herritarrekiko harremanetan, batetik, eta lankideen artekoetan, bestetik.

### *Solaskideen ageriko gaitasuna*

Amonarrizen lehenengo eta bigarren baldintzak hauek ziren: “sare horietan hizkuntza bera partekatzen duten beste pertsonak egoteaz” eta “hiztunak beste hiztun horiek hizkuntza horretako hiztun gisa identifikatzea, alegia, hizkuntza horretan aritzeko gai direla jakitea”. Zerbitzu bereko langileek elkar ezagutzen dute eta ongi dakite beren kideen hizkuntza-gaitasuna eta erabilerarako jarrera zer-nolakoak diren. Baina, baliteke zerbitzu edo erakunde ezberdinetako lankideen arteko ezagutza maila hain osatua ez izatea, eta ezagutza falta areagotzen da langile/herritarren arteko harremanetan. Solaskide dugun horren ezaugarri linguistikoak ezagutu ezean, gurean dagoen idatzi gabeko gizarte arauak erdarara jotzea agintzen digu; adibidez, lankide eta herritarren arteko kontaktuan, aurrez aurre, telefonoz edo internet bidezkoan. Halakoetan, soilik militantzia handiko euskaltzaleek, arau horri aurre eginez, hitz egingo dio euskaraz ezezagunari. Beste zirrikitu bat zabaltzen zaio euskarari hizkuntza-paisaiak zilegitasuna aitortzen badio; alegia, euskarak horretan presentzia nabarmena badu.

Ez dugu halakoan inguruko erreferentziarik aurkitu IV. Planaren ebaluazioko txostenean.

#### **9. koadroa. Solaskideen ageriko gaitasunari buruzko hausnarketak**

Solaskideen arteko elkar ezagutza linguistikoa errazteko neurririk (langile elebidunen ikurra, hizkuntza-paisaia...) ez da planetan planteatzen.

Horrek muga dezake euskararen erabilera, batez ere lankide eta herritarren arteko harremanetan, Jose Ramón Uriarte eta bere taldeak demostratu duten bezala.

#### *Harremanen trinkotasuna*

Aurreko puntuan esandakoekin batera, eredu teorikoan aipatu den bigarren baldintza ere tartean dago; Amonarrizek horrela definitutakoa, hain zuzen: *“taldeko kide gehienak hizkuntza horretan aritzeko gai izatea”*. Administrazioeko planetan, lanpostuetako hizkuntza-eskakizunak finkatzerakoan ez da halakorik kontuan hartzen. Eskakizun horiek beste ikuspegi batzuetatik izaten dira esleituak, ez lankideen arteko erabilera aukera zabaltzeari begira, eta zerbitzu berean euskaldunak zein erdaldunak diren langileak modu nahasian biltzen dira.

Hemen aintzat hartu dugun IV. Planaren ebaluazio txostenean bada horren inguruko aipamena, gabezia gisa (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2013a: 67):

—**Harremanen trinkotasuna:** *1 eta 2. tipologietako udaletan: langile euskaldun gutxi egoteagatik ez dago bermatuta euskara zerbitzu hizkuntza gisa ahozko harremanetan. /*

#### **10. koadroa. Harremanen trinkotasunari buruzko hausnarketak**

Hizkuntza irizpideak lanpostuei esleitzean ez da aintzat hartzen postu horiek beteko dituzten langileen arteko harremanen aukera.

Horrela, kasu askotan ezinezkoa da euskaldunen arteko sare trinkorik sortzea, dauden bakanak erdaldunen harreman-sareetan barreiatuta daudelako.

#### *Hautua egiteko ahalmena*

Arestian esan bezala, hizkuntza hautua botere-harremanen arabera erabaki ohi da, neurri handian. Ildo horretatik, Cooperen hitzak ekarriko ditugu lerro hauetara, beste behin:


La planificación lingüística puede iniciarse en cualquier nivel de la jerarquía social, pero es poco probable que dé resultado a menos que las élites o las contra-élites la acepten y la promuevan. (Cooper, 1997: 216)

**Talde guztietan daude eragin handiko pertsonak eta giro horretan ezertarako gauza ez direnak; bestela esanda, taldearen izaera eta funtzionamendua markatzen dituztenak eta horietara egokitzen direnak. Azken buruan, formala nahiz informala izan, egoera batean lidergoan dauden pertsonak markatzen dute hizkuntza-hautua.**

Adibidez, herri administrazio bateko zerbitzu-burua edo zuzendaria erdaldunak badira edo, euskaldunak izanda erdara aukeratzen badute, haiekiko komunikazioa, ahozkoa zein idatzizkoa, erdaraz izango da. Era berean, taldeko lan-bilerak ezin ahalko dira euskaraz izan. Baina, hierarkia formalaz kanpo ere, botere harremanak maila informalean ere agertzen dira. Talde guztietan daude eragin handiko pertsonak eta giro horretan ezertarako gauza ez direnak; bestela esanda, taldearen izaera eta funtzionamendua markatzen dituztenak eta horietara egokitzen direnak. Azken buruan, formala nahiz informala izan, egoera batean lidergoan dauden pertsonak markatzen dute hizkuntza-hautua.

**Erakunde-ordezkariek ezagutza:** Gaitasun erlatiboaren azpi-atalean esan bezala, galdetu da erakunde-ordezkariek euskaraz ulertzen duten, hitz egiteko, idazteko eta irakurtzeko gai diren, eta euskaraz lan egiteko mailarik ote duten.

7.grafikoa Erakunde-ordezkariek euskararen ezagutza (%)



3. taula. Erakunde-ordezkariek euskararen ezagutza<sup>7</sup>

Erakunde motak	Guztira	Ulertzen du (%)	Hitz egiteko gai da (%)	Idazteko gai da (%)	Irakurtzeko gai da (%)	Lan egiteko maila du (%)
1.- Udalak	2 472	70.58	65.44	60.12	66.49	57.97
2.- Mankomunitate, kuadrilla eta partzuergoak	416	73.49	68.51	55.29	69.60	62.74
3.- Foru Aldundiak eta Batzar Nagusiak	220	68.51	61.23	53.78	63.10	52.65

4.- Eusko Jaurilaritza eta beraren erakunde autonomiadunak	183	42.23	31.04	29.94	38.22	27.19
5.- Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa	107	65.35	64.65	53.3	66	54.63
6.- Euskal Herriko Unibertsitatea	15	86	80	80	100	80
7.- Herri Kontuen Euskal Epaitegia	8	25	12.5	12.5	25	12.5
8.- Lan Harremanen Kontseilua	2	0	0	0	0	0
9.- Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	-	-	-	-	-	-
10.- Uraren Euskal Agentzia	1	100	100	100	100	100
11.- Haurreskolak Partzuergoa	-	-	-	-	-	-
12.- Etxepare Euskal Institutua	2	100	100	100	100	100
<b>GUZTIRA</b>	<b>3 427</b>	<b>68.98</b>	<b>63.51</b>	<b>57.24</b>	<b>65.08</b>	<b>56.42</b>

Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (2013a: 20).

Erakundeen ordezkariak idazteko garaian dute muga gehien eta ulermenean gutxien. Izan ere, gutxi gorabehera, erakunde-ordezkariak bi heren baino gehiago euskara ulertzeko (%68,9) eta euskaraz hitz egiteko (%63,5) gai da; erdiak baino gehiagok dauka euskaraz lan egiteko gaitasuna (%56,4). (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2013a: 19-21)

Planen ebaluazioan ez da puntu honen inguruko erreferentzia zuzenik aurkitu, baina bai, zeharka bada ere, botere-harremanen ikuspegitik erabilgarriak izan daitezkeenak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2013a: 67-68):

- Ahozko lan hizkuntza: Langileen joera ahozkoan gaztelaniaz egiteko. /
- Idatzikoan, abioko hizkuntza gaztelania da. /
- HPSren gidaritza indartu beharra. /

#### 11. koadroa. Hautua egiteko ahalmenaren inguruko hausnarketak

Erakundeen ordezkari guztiak ez daude euskaraz gaituta, eta gaituak direnek mugarik handiena dute lan-hizkuntza gisa baliatzeko.

Lidergoak erakundeetan duen garrantziaz jabetuta erakunde ordezkariak planetan sartu behar dira:

- Liderren gaitasuna eta erabilera lehenetsuzkoak dira lan-hizkuntza bihurtzeko.
- Langile batzuegan nagusitzen den erdarako inertzia eraldatzen asko lagun lezake lidergotik eragiteak.

**Erakundeen ordezkariak idazteko garaian dute muga gehien eta ulermenean gutxien. Izan ere, gutxi gorabehera, erakunde-ordezkariak bi heren baino gehiago euskara ulertzeko (%68,9) eta euskaraz hitz egiteko (%63,5) gai da; erdiak baino gehiagok dauka euskaraz lan egiteko gaitasuna (%56,4).**


**Administrazioko Erabilera Planen eskutik esan daiteke gure herri administrazioa aitzindari nagusietako bat ari dela izaten hizkuntza normalkuntzaren ibilbidean. Horrek ez du esan nahi dena ongi egiten ari denik, ezta hurrik eman ere. Baina, era berean, bidezkoa da egindako ahalegin eta lorpenen aitortza egitea.**

### 3.5 Planen eraginaren isla gizartean

Administrazioko Erabilera Planen eskutik esan daiteke gure herri administrazioa aitzindari nagusietako bat ari dela izaten hizkuntza normalkuntzaren ibilbidean. Horrek ez du esan nahi dena ongi egiten ari denik, ezta hurrik eman ere. Baina, era berean, bidezkoa da egindako ahalegin eta lorpenen aitortza egitea.

Badira horren erakusle izan daitezkeen bi datu. Izan ere, 1991-2011 denbora tartean gertatu den erabilerearen hazkunderik handienak lankideekin eta hainbat eremu formaletakoak izan dira, Nafarroan eta, bereziki, Euskadiko Autonomia Erkidegoan (EAE, hemendik aurrera). (Iurrebaso, 2012: 109). Erabilerearen gorakada horiek biek izan lezakete loturaren bat, seguru asko, herri administrazioarekin.

8. grafikoa. Erabilerearen bilakaera erlatiboa, administrazio-eremuka (hazkunde %tan), Euskal Herria, 1991-2011



Euskararen erabilera izan duen hazkunde erlatiborik handienetako bat eremu formaletan gertatutakoa da, tartean herri administrazioko bi erakunde mota daudelarik: udalaxeak eta osasun zerbitzuak, hain zuzen.

Bestetik, lankideen arteko euskararen erabilera da erlatiboki gehien aurreratu den beste eremuetako bat. Horretan ere herri administrazioak izango du zer esanik; izan ere, lantokietako hizkuntza planak batez ere funtzionario eta erakunde publikoetako bestelako langileen artean dira aurrera; betiere eremu pribatuko enpresetan baino neurri za-

balagoan. Hortaz, lankideekin euskararen erabilerak izan duen gorakada herri administrazioaren eskutik etorriko da, neurri handian.

Zuzenean zein zeharka, beraz, herri administrazioetako planek ba omen dute isla euskararen bilakaera positiboan.

#### 4. AZKEN ONDORIO ETA HAUSNARKETAK

Robert L. Cooper-ek hiru arlo kokatzen ditu hizkuntza-plangintzaren baitan: plangintza funtzionala, hizkuntza-jabekuntzaren plangintza eta plangintza formala (Cooper, 1997: 122-193). Hiru arlo horiek lantzen dira, neurri eta lehentasun ezberdinekin, herri administrazioen euskararen erabilera planetan. Plan horiek abian daude bi kolektiboen jardueran eragiteko asmoz: a) orain arte gehienbat gaztelaniaz artatuak izan diren herritarrengan, hemendik aurrera euskarazko aukera ere balia dezaten; b) erakunde horietako langileen lan-hizkuntza euskara (ere) izan dadin. Hemen, EAEra mugatu dugu *herri administrazio eta erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko planen analisia*, eskarmen-turik handiena erkidego horretan aurki daitekeelako, ongi egindakotik zein akatsetatik begiraturaz.

**Planak eta erakundeak:** 2008-2012 denbora tartean gauzatu zen IV. Plangintzaldiaren ebaluazioan 323 herri administrazioak ez ezik, lehen aldiz kontuan hartu ziren beste 210 sozietate publiko eta zuzenbide pribatuko erakunde publiko. Dena den, informazio gehiena eratorri da lehenengo multzo horretatik, erantzuna eman duten 299 (%92) erakundeei esker. Horien arabera, ziurtzat jo daiteke erakunde guztien %75ak plana abian duela, erantzun ez dutenen inguruan ezer ziurtatzerik ez dagoelako. Zer gertatzen da falta den beste laurdenarekin? Sozietate publikoek bigarren talde horretan, aldiz, %40k baino ez du erantzun.

Erakunde guztiek galdesortari erantzun ez diotela aintzat hartuz pizten zaizkigu lehenengo galderak: Zergatik ez diote galdesortari erantzun? Zein dira horren arrazoiak? Areago, nolabaiteko jarraipenik egiten zaie erakunde horiei? Antzeko galdera-sorta egin liteke ere planik oraindik abian ez dutela aitortu duten erakundeen inguruan. Beste horrenbeste, sozietate publikoetatik erantzun ez duen gehiengoari buruz. Azken buruan, kasu horien gaineko informazioa ez da nahikoa egoeraren ezagutza sakon eta zehatza izateko. Ezjakintasuna nagusi bada, nola hobetu edo bideratu planen gabeziak, hutsuneak eta akatsak? Nola areagotu haien eragina?

Era berean, *management* diziplinatik begiratuta (Erize, 2013) planen egokitasunaz zenbait zalantza pizten da, planen diseinu, ezarpen, ja-

---

**Herri administrazioen %92k eman du informazioa; inoizko erantzun tasarik handiena. Erantzun duten erakundeen kasuan, euskararen erabilera, oro har, nahikoa altua da. Kasu batzuetan espero baino askoz handiagoa, hain zuzen. Alegia, herritarren eta administrazioen ahozko erabilera ez dago oso urruti gaztelaniazko erabileratik.**

**Informazio horiek, ordea, susmoa sortarazten dute soslai jakina duten erakundeena baino ez delako: galdesortari erantzuna eman dutenena baino ez, hain zuzen. Hots, erantzun ez duten erakundeen emaitzak nolakoak lirateke?**

rraipen eta ebaluazioaren ingurukoak. Adibidez, plan baten abiapuntu sendoa xede-taldeen gainekoa merkatu azterketa zorrotza da, baina ez dugu halakorik aurkitu.

Kudeaketa gaiarekin amaitzeko, plangintzaldien lidergo sakabana-tua eta, ondorioz, lausotua aipatu behar da. Erakunde bakoitzak plana diseinatu eta ezartzeko autonomia osoa izanik, ba ote dinamika horretan murgilduta dauden erakundeen artean gutxieneko koordinazio eta elkarlanik? Ezezkotan gaude, eta jakina da lankidetzak emaitzak biderkatzen lagun lezakeela.

**Emaitzen balorazioa:** Herri administrazioen %92k eman du informazioa; inoizko erantzun tasarik handiena. Erantzun duten erakundeen kasuan, euskararen erabilera, oro har, nahikoa altua da. Kasu batzuetan espero baino askoz handiagoa, hain zuzen. Alegia, herritarren eta administrazioen ahozko erabilera ez dago oso urruti gaztelaniazko erabileratik. Telefono eta leihatilako harreran, euskara nagusi da. Erakunde barneko elkarrizketetan, lan bileretan eta harreman informaletan, datuek ere erdizka banatzen dira euskara eta gaztelaniaren artean. Kanpo harremanetako idatziko erabileran, bestalde, elebitasuna gailentzen da administrazioen arteko harremanetan eta gaztelania herritarrek idatzitakoetan, azken horiengan euskara heren bat izatera hurbiltzen delarik.

Informazio horiek, ordea, susmoa sortarazten dute soslai jakina duten erakundeena baino ez delako: galdesortari erantzuna eman dutenena baino ez, hain zuzen. Hots, erantzun ez duten erakundeen emaitzak nolakoak lirateke? Apalagoak, seguru asko, eta zer esanik ez planik abian jarri ez dutenenak.

Badaude beste zalantza metodologiko batzuk gehiago ere: ea erakunde mota guztiei pisu bera eman ote zaien. Alegia, erakunde handi batek eta txiki batek ez dute harreman-multzo edo kopuru berdinek sortzen, eta horregatik egokia litzateke galdesortaren emaitzak kasu bakoitzaren pisuaren arabera haztatzea. Datuak zalantzan jartzea handiustetzat jo liteke, baina gogoan izan behar da zalantzak paradigma zientifikoaren pizgarria edo motorra direla. Hortaz, alde ilun horiek ongi argitzea beharrezkoa da, datuen interpretazio zuzena egin ahal izateko eta, aldi berean, emaitzek sinesgarritasuna irabaz dezaten. Azkenik esan, erakundeek emandako informazio hori aitortua dela eta, horregatik, subjektibotasunaren menpe daudela. Egokia litzateke, beraz, halako datuak zenbait neurketa objektiborekin osatzea.

**Emaitzen balorazio soziolinguistikoa:** Administrazioko Erabilera Planen emaitzak aztertu dira eredu teoriko baten argira (Martínez de Luna, Suberbiola eta Basurto, 2009). Hurbilpen horretatik ikusita eta

IV. Plangintzaldiaren ebaluazio txostenak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2013a) jasotzen duen informazioaren arabera, badaude planak hobetzeko beste hainbat puntu. Hori horrela da, eredu teorikoak aztertzen dituen hiru mailetan: norbanakoan, mikrosozialesan eta makrosozialesan. Hala nola hizkuntzaren estatus juridikoan, hizkuntzak gizartean duen babesean, hizkuntza gaitasun eta motibazioan, solaskideen arteko trinkotasunean, edo hiztunak duen hautua egiteko aukeretan. Horietan guztietan badago zer aztertu eta, ondoren, ezagutza hori non/zertan baliatu. Kontua izanda hiru maila horiek elkarri eragiten diotela, planteamenduan ikuspegi orokorra edo holistikoa erabili beharko litzateke.

Hala ere, V. Inkesta Soziolinguistikoa oinarri hartuta (Iurrebaso, 2012), zilegi da euskararen erabilerak gizarteko zenbait arlotan izan duen gorakada herri administrazioan eman diren aurrerapausoei lotzea. Alegia, zenbait eremu formaletan (udaletan eta osasun zerbitzuetan) eta lankideekin antzemandako erabileraren igoera herri administrazioen planen zeharkako eragina izango dela pentsa daiteke. Aitortza hori egitea ere beharrezko bezain bidezko da.

**Azken hausnarketak:** Herri administrazioen euskararen erabilera normaltzeko planen emaitzak, mugak muga, agerikoak dira eta beren eragina gizartean ere antzematen da. Beraz, planak, akats eta muga guztiak tarteko, ekarpena egiten ari dira. Gauzak horrela, pentsa daiteke zer-nolako aurrerakada ikus genezakeen planei kudeaketa zorrotza aplikatuko balitzaie, eta beren alderdi ilunak ezagutza zientifikoaz argitu eta landuko balira? Ideia horren harira, azken galdera bat: planen inguruko ezagutza sakon jorratzerakoan eta beren metodologia hobetzerakoan Unibertsitatearen ikuspegi zientifikoak ez du ezer esaterik izango? ●

## OHARRAK

1. Artikulua 2014ko maiatzaren 15ean eta 16an Lasarte-Orian ospatu zen *Udaltop Soziolinguistika Jardunaldian* eskainitako hitzaldian oinarritu da; testua jardunaldiaren webgunean argitaratua izan da lehenbizi: <http://www.elkarrekinberritzen.net/fitxategiak/dokumentuak/dokumentazioa/inaki-martinez-de-luna-artikulua-web-2.pdf>
2. 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Legea, Euskararen Erabilpena Arautzezkoa (1982-16ko EHAAko 160. zbk.).
3. Datuak lanpostuen titularrei dagozkie, okupatzaileei dagozkien datuak izatea ezinezkoa delako.
4. DD: Derrigortasun Data.
5. Hutsik edo informaziorik gabe: lanpostua bete gabe dago edo ez dago informaziorik.
6. Titular edo okupatzaileak beteak: lanpostua beteta dago titularra edo okupatzailearekin.
7. Jasotako erantzun kopuruak: Ulertu: 287; Hitz egin: 286; Idatzi: 285; Irakurri: 288; Lan egin: 285.

**Herri administrazioen euskararen erabilera normaltzeko planen emaitzak, mugak muga, agerikoak dira eta beren eragina gizartean ere antzematen da. Beraz, planak, akats eta muga guztiak tarteko, ekarpena egiten ari dira. Gauzak horrela, pentsa daiteke zer-nolako aurrerakada ikus genezakeen planei kudeaketa zorrotza aplikatuko balitzaie, eta beren alderdi ilunak ezagutza zientifikoaz argitu eta landuko balira?**

## **BIBLIOGRAFIA ETA BESTELAKO ERREFERENTZIAK**

- Amonarriz, K. (1991). "Euskararen erabilpenaren kale neurketen inguruko gogoetak". *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 3-4 (39-50).
- Cooper, R. L. (1997). *La planificación lingüística y el cambio social*. Cambridge. Cambridge University Press.
- Erize, X. (2013). "Management eta hizkuntza plangintza". (HIZNET) *Hizkuntza Plangintza graduondokoa* (2013-2014 ikasturtea). Euskal Herriko Unibertsitatea-Asmoz Fundazioa. (<http://hiznet.asmoz.org/>).
- Fishman, J. A. (1979). *Sociología del lenguaje*. Madrid. Cátedra.
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (2013a). *Euskararen erabileraren normalizazioa herri administrazioetan. IV. plangintzaldia (2008-2012). Ebaluazio txostena*. (2013ko maiatzeko dokumentua).
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (2013b). *V. Plangintzaldia. EAEko herri administrazio eta erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko planetarako irizpide orokorrak*. (2013ko uztailaren 24ko dokumentua).
- Iurrebaso, I. (2012/3). "Euskararen erabilera zertan den. Premiazko diagnostiko bat datuen argitan". *Bat Soziolinguistika aldizkaria* 84 (103-120).
- Martínez de Luna, I., Suberbiola, P. eta Basurto, A. (2009). *Ikasleen eskola giroko hizkuntza erabileraren azterketa*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza.
- Sánchez Carrión, J. M. (Txepetx) (1991). *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskera y teoría social de las lenguas*. Donostia, José María Sánchez Carrión (argit.).